

BIBLIA

1.- «Ez jakin, ta jakin ez, ez dakiala», arroputzen jokabidea ei da! Erlejiñoari buruz esaten diran astakeriak entzunda, batek ez daki, sarritan, negar ala barre egin. Zenbat ta ezjakintsuagoa, disparate aundiagoak! Erlejiño gauzetan zenbat ezjakintsu, naizta beste zientzi arloetan jakintusak izan. Esan leike, edozeñiek daukala aoa zabaltzeko eskubidea koloreak gorritu barik, naizta orretaz tautik jakin ez. Apalen ez jakiñak samurtu egiten dau gizonen biotza, ez jakitun arroputzenak, barriz, iguindu!

2.- Ez da denpora asko, BUP irugarren kursoko euskaldun talde bategaz nintzan. «De omni re scibile» egin genduan berba. Zer esanik ez, erlejiñoari buruz be, bai! Bibliari dagokionez, entzun nebazan antzutekoak! Azkonar zulo baten sartzeko gogoia etorri yatan burura, ia an zerbait geiago ikasi nenkian!

3.- Kultura aldetik begiratuta, badaukagu euskaldunok, Bibliari buruz zerbait geiago jakiteko motiboak. Bai literatura aldetik, baita istori aldetik be. Gure BUP edo FP ikastetxetan dabilzan gazteak badauke ikasi premiña. Europar batentzat, utsune aundi bat deritxat, Biblia ez ezagutzea. Europatarren kultura, geien bat, or oinarritzen da. Ta euskaldunok europarrak gara.

Europako kulturgintzan, ezin daikeguz baztertu, ez Omer, ez Birgil ez Cervantes, ez Dante, ez Shakespear, ez Goethe, ez Orixe. Baiña guztion gañetik, Bibliaren eragipena dauko sartal-

deko gizarteak. Esaterako, amerikanuek illargira joan ziranean, Biblia eroan eben, gure sartaldeko kulturaren ezaugarri bakarrena bezala!

4.- Euskaldunok baditugu Biblia osoaren itzulpen ederrak. Ona emen, euskalki berezietan egindakoak. J. Duvoisin kapitarena, lapurdieraz. Sei urte bear izan ebazan Biblia osoa euskeratzeko. Ta Bonaparte printzeak argitaratu eban, 1859 urtean, «Biblie Saindua» izen buruaz. Itzulpen au, barriro be, 1972 urtean, argitaratua izanda, Lino Akesoloren itzaurre mamintsuagaz.

Gipuzkeraz, 1958 urtean, agertu zan Biblia osoaren itzulpena. Olabide josulagunak bete eban lan aundi ori. «Itun Zar eta Berria» jarri eutson titulu bezala.

Bizkaitarrok be, poztu geinkez Kerexeta abadearen itzulpenagaz Bizkaiera errazean, edonok ulertu leiken eran, argitaratu eban Bilbon, 1976 urtean. «Euskal Biblia» dau bere izen burua.

Badira beste itzulpen batzuk be, naizta Bibliaren zatiren batzuk bakarrik izan. Leizarragaren Testamentu Berriaren itzulpenetik (1571) Elizen Arteko Bibliako Itun Berriaren itzulpenaraino (1983), lan aipagarriak egin dira Biblia euskeratzen. Nok aaztu Iratzederren ta Lino Akesoloren Salmoen itzulpenak? Edo Mezan darabilguzan irakurgaiak? Edo Orduen Liturgia? Ta zoritxarrez, badira argitaratu ez diran itzulpenak be. Hipolito Larrakoetxearena, adibidez.

5.- Ortik aparte, kristiñauontzat, Biblia erlijio liburu baka- rrena dogu. Jaungoikuaz zer ikusia daukon liburua. Kristau batarretan, Bibliaren zatiren bat, iragarten danean, jaungoikuaren berbea, esanez amaitzen da irakurgai ori. Orrek esan gura dau, Bibliak Jaungoikuak gizonei esandako berbera eta egindako gauzen barri emoten dabela.

Jaungoikuaren berbea daukagu Biblian. Baña gizonaren berbea be badago bertan. Jaunaren esana, gizonen bidez datoriki-

gu. Liburu Santua ez da zerutik biribilduta jausitako liburua. Gizonak idatzi eben ta aldi askotako gizonak gañera: jakintsu, legegille, istorialari, profeta, mistiko, gobernugizon, apostolu edo euren urrekoak.

6.- Biblia, erlijio liburua da. Sinismendunek idatzita ta sinismendunentzat zuzenduta. Ezta ba zientzi liburua, lurra zelan eratu zan esateko egiña. Atomo ta olako gauzetan ez dabil. Biblia idatzi zan denporetan ezekien orrelako gauzarik. Ta jakin izan balebe be, ezeuken interes aundirik zientzi-gaiak. Jaungoikua dala gauza guztien egillea eta ez dagola beste jainkorik interesatzen yaken bakarrik. Au ezin daikegu iñondik be aaztu, lañotan dantzan nai ez badogu ibilli.

Orregaitik, Idazti Deuna irakurtzekorakoan, gauza bi artu bear dira kontuan: zer diñon ta zelan diñon, au da, zeintzuk diran Jaungoikuak erakutsi nai dauskuzan salbamen egiak eta zeintzuk diran idazlariaren pentsaera ta esaerak. Jaungoikuaren berbea gizonen ta errien istorian nastauta agertzen jaku.

Esaterako, «lurreko buztiñaz egin ebalá gizona» diñoskuan, ez dau esan nai Jaungoikua buztingille bat lez ibilli zanik. Or agertzen jakuna auxe da: Jaungoikuak maitasun aundiz, berriz egin ebalá gizona. Edo «gizonaren saietzetik andrea egin ebalá» diñoanean, or azpian dagon mezua auxe da: gizona ta emakumea izate bardiñekoak dirala. Olantxe saiatu bear gara, Eleizaren babespean, Jaunaren mezua Biblian zear aztertzen.

Au gogoan eukirik, esan geinke, Biblian ez dagola guzurrezkorik gure salbaziñorako. Ez dago ezer faltsurik, au da, ez dago ezer salbaziñorako baliozko ez dagonik, Jaungoikuaren adiskide ta seme-alaba izan gaitezen.

7.- Juangoikuaren esana, idatzita daukagu Biblian. Emendik ondorio sakon bat datorkigu fededunontzat. Au da, Jaunaren naia ta borondatea, ez dogu aurkitzen bakarrik Liburu Santuetan. Or be bai, baña ez or bakarrik! Gure Jaungoikua ez dago ezeri lotuta. Bide asko ditu bere asmoak agertzeko. Edozein bide-

kurutzetan agertzen dau bere naia. Gure sinismena ez da oiñarritzen ba, liburu baten, Jesukristo berbiztuarengan baño.

Ortxe aurkitzen da protestante ta katolikuen artean dagon mugarik aundiena. Katolikuentzat, Jaungoikuaren bideak ta asmoak zabalak dira ta ez dagoz osorik lotuta liburu bateri, naizta liburu ori Biblia izan. Ainbat sasi-katoliku modernuk, badauka begiak zabaltzeko premiña, Jaunaren bideak istoriaren erraetan aurkitzeko.

8.- Biblian zear, ukatu ezin leiken mezu ederra auxe bai badala: Jaungoikua orain be *ekiñean ari dala*, bere neurri bako maitasunez, gure ezetzari apaltasun beteriko baietzaz erantzunez. Biblia irakurtzea Jaungoikuarekin otoitzean sartzea da eta batera Jaungoikuak esaten dauskunari adi egotea.

Euskaldunok, bai kultura aldetik ta fede aldetik zer esanik ez, baditugu arrazoiak Liburu Santuak geiago ezagutu ta maitatzeko, europarren nortasuna ta berezitasuna geien bat or oiñarritzen danez. Ala Pirineosen amaitzen ete da Europa?

A. Olea